

JATORRI ATZERRITARREKO ETORKINAK EAEko ESKUALDEETAN 2015


Begirada honetan, EAEn erroldatuta dauden jatorri atzerritarreko etorkinak izango ditugu aztergai, eskualdeka banatuta; horretarako, 2016ko urtarrilaren 20an argitaratutako erroldako behin betiko datuak erabiliko ditugu, 2015eko urtarrilaren 1eko ustiapenari dagozkionak. EAEko hoguei eskualdetako egoera aztertuko dugu, kontuan hartuta jatorri atzerritarreko biztanleak nola dauden banatuta, eta aldagai hauen arabera bereizita: sexua, jatorri nagusiak eta jatorri-herrialdeak. Begirada honen bidez, eguneratu egingo ditugu 2007an, 14. begiradan, aztergai izan genituen eskualdeen arabera datuak. Ikuspegin ohi dugun moduan, 2015etik aurrera, jatorri atzerritarreko biztanleak hartzen ditugu kontuan datuak aztertzeke garaian, eta ez nazionalitate atzerritarra dutenak; hartara, aintzat hartuko ditugu nazionalizatzeko prozesuak direla-eta datuetatik kanpo gera daitezkeen biztanleak eta, ondorioz, emaitzek izan zezaketen alborapen hori ekidindo dugu.

Euskal eskualdeetako egoera orokorra

Jatorri atzerritarreko biztanleriaren banaketa EAEn, eskualdeen arabera

2015eko erroldako datuen arabera, EAEn bizi diren jatorri atzerritarreko biztanle gehienak hiriburuen inguruan bizi dira: gehienek Bilbo Handia aukeratzen dute (% 37,0), eta ondoren Arabako Lautada (% 16,1) eta Donostialdea (% 15,1). Horrenbestez, hiru eskualde horiek EAEn bizi diren jatorri atzerritarreko biztanleria osoaren % 68,2 hartzen dute. Interesgarria da behatzea zentraltasun hori mantendu egin dela azken urteotan, aldaketa txiki batzuk izan baditu ere (1. grafikoa). Arabako Lautadaren eta Donostialdearen egoera ia berdina izan da, eta Bilbo Handiaren kasuan, berriz, bertan bizi diren jatorri atzerritarreko etorkinen kopurua hiru puntu jaitsi da; ondorioz, Bizkaiko gainerako eskualdeetako kopuruek gora egin dute 2004tik 2015era.

1. grafikoa. Atzerriko biztanleen kokalekuen bilakaera, hiriburuetako eskualdeetan eta gainerakoetan (%). 2004, 2009 eta 2015



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egin da.

Beraz, atzerrian jaiotako biztanleak hiriburuetan pilatzen dira nagusiki, eta sakabanatuago daude gainerako eskualdeetan eta landa-eremuetan. Gauza bera gertatzen da bertan jaiotako biztanleekin (1. taula).


1. taula. Guztizko biztanleriaren (bertakoa eta atzerritarra) banaketa, jatorriaren eta eskualdeen arabera. 2015

| | Guztira | | Bertokoak | | Jatorri atzerritarra | |
|--------------------|-----------|-------|-----------|-------|----------------------|-------|
| | K | % | K | % | K | % |
| Arabako Ibarrak | 5.674 | 0,3 | 5.201 | 0,3 | 473 | 0,3 |
| Arabako Lautada | 260.542 | 11,9 | 230.899 | 11,5 | 29.643 | 16,1 |
| Arabako Mendialdea | 2.982 | 0,1 | 2.824 | 0,1 | 158 | 0,1 |
| Errioxa Arabarra | 11.293 | 0,5 | 10.099 | 0,5 | 1.194 | 0,6 |
| Gorbeia Inguruak | 8.682 | 0,4 | 8.105 | 0,4 | 577 | 0,3 |
| Kantauri Arabarra | 34.475 | 1,6 | 32.483 | 1,6 | 1.992 | 1,1 |
| Araba, guztira | 323.648 | 14,8 | 289.611 | 14,4 | 34.037 | 18,5 |
| Arratia Nerbioi | 23.849 | 1,1 | 22.386 | 1,1 | 1.463 | 0,8 |
| Bilbo Handia | 865.398 | 39,5 | 797.300 | 39,8 | 68.098 | 37,0 |
| Durangaldea | 98.278 | 4,5 | 90.862 | 4,5 | 7.416 | 4,0 |
| Enkarterri | 32.240 | 1,5 | 30.032 | 1,5 | 2.208 | 1,2 |
| Gernika-Bermeo | 46.224 | 2,1 | 42.362 | 2,1 | 3.862 | 2,1 |
| Markina-Ondarroa | 26.073 | 1,2 | 23.875 | 1,2 | 2.198 | 1,2 |
| Plentzia-Mungia | 56.713 | 2,6 | 52.705 | 2,6 | 4.008 | 2,2 |
| Bizkaia, guztira | 1.148.775 | 52,5 | 1.059.522 | 52,8 | 89.253 | 48,5 |
| Bidasoa Beherea | 78.426 | 3,6 | 69.900 | 3,5 | 8.526 | 4,6 |
| Debarrena | 55.752 | 2,5 | 50.908 | 2,5 | 4.844 | 2,6 |
| Debagoiena | 62.720 | 2,9 | 58.301 | 2,9 | 4.419 | 2,4 |
| Donostialdea | 327.992 | 15,0 | 300.094 | 15,0 | 27.898 | 15,1 |
| Goierri | 68.234 | 3,1 | 62.368 | 3,1 | 5.866 | 3,2 |
| Tolosaldea | 48.797 | 2,2 | 45.166 | 2,3 | 3.631 | 2,0 |
| Urola Kosta | 74.913 | 3,4 | 69.190 | 3,5 | 5.723 | 3,1 |
| Gipuzkoa, guztira | 716.834 | 32,7 | 655.927 | 32,7 | 60.907 | 33,1 |
| EAE, guztira | 2.189.257 | 100,0 | 2.005.060 | 100,0 | 184.197 | 100,0 |



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egin da.

Jatorri atzeritarreko biztanleen banaketa: eskualdeak, lurralde historikoen arabera

Jatorri atzeritarreko biztanleen banaketa lurralde historikoen arabera aztertzen badugu, emaitza bestelakoa da (2. grafikoa): batetik, Araban eta Bizkaian gehienak eskualde bakarrean pilatuta daude, Arabako Lautadan (% 87,1) eta Bilbo Handian (% 76,3), hurrenez hurren. Gipuzkoan, berriz, jatorri atzeritarreko biztanleak ez daude hain zentralizatuta, eskualde hauetan sakabanatuta baizik: Donostialdea (% 45,8), Bidasoa Beherea (% 14), Goierri (% 9,6) eta Urola Kosta (% 9,4) –2. grafikoa–.



2. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleen banaketa, lurralde historiko bakoitzeko eskualdeen arabera. EAE. 2015



Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

Azken urteotan, 2004tik 2015era, izan duen bilakaera dagokionez, Gipuzkoako jatorri atzeritarreko biztanleak deszentralizatuta zeuden hasieratik, 2004tik, zenbait aldaketa txiki egon badira ere. Hain zuzen ere, Donostialdean bizi diren jatorri atzeritarreko biztanleen ehunekoak behera egin du: 2005ean % 52 eta 2015ean % 46. Aldiz, lurraldeko beste eskualde batzuetako ehunekoek gora egin dute: Goierri (% 7tik % 10era), Tolosaldea (% 4tik % 6ra), Debabarrena (% 6tik % 8ra) eta Debagoiena (% 5etik % 8ra). Araban, jatorri atzeritarreko biztanleriak behera egin du Arabako Lautadan eta Arabako Mendialdean. Beste eskualde batzuetan bere horretan geratu da, esaterako Arabako Ibarretan eta Gorbeialdean; eta beste batzuetan gora ere egin du: Arabako Errioxan eta Kantauri Arabarran.

Bizkaiko eskualdeetako bilakaerari dagokionez, azken urteotako joera nahiko egonkorra izan da, baina jatorri atzeritarreko biztanleek gora egin dute zenbait eskualdetan (Durangaldea eta Gernika-Bermeo) eta behera beste batzuetan (Bilbo Handia, Plentzia-Mungia eta Markina-Ondarroa).

Jatorri atzeritarreko biztanleen ehunekoa eta bilakaera

Eskualdeen arabera jatorri atzeritarren ehunekoak aztertzen baditugu (2. taula eta 1. mapa), hogeitik seik besterik ez dute gailentzen EAEko batezbestekoa (% 8,4). Horietako bi Araban daude (Arabako Lautada eta Arabako Errioxa), eta lau Gipuzkoan (Bidasoa Beherea, Debabarrena, Donostialdea eta Goierri).

- Arabako Lautada da EAEn atzeritarren ehunekorik handiena duen eskualdea (% 11,4), Gasteiz buru duela; horren atzetik, Arabako Errioxa dago (% 10,6).
- Bigarren multzoan, Gipuzkoako eskualde hauek ditugu: Bidasoa Beherea (% 10,9), Debabarrena (% 8,7), Goierri (% 8,6) eta Donostialdea (% 8,5). Bidasoa Beherearen

2. taula. Jatorri atzeritarreko biztanleen portzentajearen bilakaera, EAEko eskualdeen arabera. 2004, 2009 eta 2015 (%)

| | 2004 | 2009 | 2015 | Dif. 04-09 | Dif. 09-15 |
|--------------------|------|------|------|------------|------------|
| Arabako Ibarrek | 2,9 | 6,8 | 8,3 | 3,9 | 1,5 |
| Arabako Lautada | 5,5 | 10,4 | 11,4 | 4,9 | 1,0 |
| Arabako Mendialdea | 4,5 | 6,5 | 5,3 | 2,0 | -1,2 |
| Errioxa Arabarra | 3,8 | 8,9 | 10,6 | 5,1 | 1,7 |
| Gorbeia Inguruak | 3,6 | 6,9 | 6,6 | 3,3 | -0,3 |
| Kantauri Arabarra | 1,8 | 4,8 | 5,8 | 3,0 | 1,0 |
| Araba, guztira | 4,9 | 9,5 | 10,5 | 4,6 | 1,0 |
| | 2004 | 2009 | 2015 | Dif. 04-09 | Dif. 09-15 |
| Arratia Nerbioi | 2,8 | 5,8 | 6,1 | 3,0 | 0,3 |
| Bilbo Handia | 3,6 | 7,0 | 7,9 | 3,4 | 0,9 |
| Durangaldea | 2,8 | 6,6 | 7,5 | 3,8 | 0,9 |
| Enkarterri | 2,7 | 5,8 | 6,8 | 3,1 | 1,0 |
| Gernika-Bermeo | 3,4 | 7,3 | 8,4 | 3,9 | 1,1 |
| Markina-Ondarroa | 4,5 | 8,1 | 8,4 | 3,6 | 0,3 |
| Plentzia-Mungia | 4,3 | 6,8 | 7,1 | 2,5 | 0,3 |
| Bizkaia, guztira | 3,5 | 7,0 | 7,8 | 3,5 | 0,8 |
| | 2004 | 2009 | 2015 | Dif. 04-09 | Dif. 09-15 |
| Bidasoa Beherea | 5,2 | 9,2 | 10,9 | 4,0 | 1,7 |
| Deba Beherea | 2,7 | 6,2 | 8,7 | 3,5 | 2,5 |
| Debagoiena | 1,9 | 5,2 | 7,0 | 3,3 | 1,8 |
| Donostialdea | 3,9 | 7,1 | 8,5 | 3,2 | 1,4 |
| Goierri | 2,5 | 7,6 | 8,6 | 5,1 | 1,0 |
| Tolosaldea | 2,3 | 5,3 | 7,4 | 3,0 | 2,1 |
| Urola-Kostaldea | 2,9 | 6,7 | 7,6 | 3,8 | 0,9 |
| Gipuzkoa, guztira | 3,4 | 7,0 | 8,5 | 3,6 | 1,5 |
| EAE, guztira | 3,7 | 7,0 | 8,4 | 3,3 | 1,4 |

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.


kokapen geografikoa nabarmendu behar da, muga-mugan baitago.

- Bizkaian, Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa eskualdeak dira atzeritar-tasarik altuena dutenak, baina ez dute batezbestekoa gailentzen.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi interesgarri bat eskualdeetan gertatu den migrazio-fenomenoa da; horren baitan bi etapa nagusi hauek bereiz daitezke (1. mapa):

- Lehenengoak zerikusia izan zuen hazkunde ekonomiakoaren aldiarekin; hain zuzen ere, 2004tik 2015era, biztanle atzeritarren ehunekoak nabarmen egin zuen gora eskualde guztietan. 3. taulan ikusten den moduan, gorakada Gipuzkoako eskualde hauetan nabaritu zen batik bat: Debabarrena, Debagoiena, Goierri, Tolosaldea eta Urola Kosta; baina baita Araban (Arabako Ibarrek, Arabako Errioxa eta Kantauri Arabarra) eta Bizkaian ere (Durangaldea, Gernika-Bermeo eta Enkarterri).
- Bigarren etapan, krisi ekonomikoaren garaian (2009tik 2015era), joera hori desagertu egin zen eta biztanleria immigrantearen hazkunde erritmoa moteldu zen eskualde guztietan, bai ehunekotan, bai kopuru absolutuetan ere. Gorbeia Inguruetan eta Arabako Mendialdean biztanleria atzeritarren ehunekoak behera egin zuen, gainerako eskualdeetan portzentajea mantendu edo zertxobait gora egin zuen bitartean. Gorakada txiki hori Arabako Ibarrek eta Arabako Errioxa eskualdeetan nabarmentzen da Arabako kasuan; Bizkaian, Gernika-Bermeon; eta Gipuzkoan, Debabarrena, Debagoiena, Tolosaldea eta Bidasoa Beheran (2. taula).

1. mapa. EAEko eskualdeak jatorri atzeritarreko biztanleen ehunekoaren arabera. 2004, 2009 eta 2015



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egin da.

Sexuaren araberako banaketa

Sexuaren araberako banaketa aintzat hartuz gero, ikus daiteke eskualde gehienetan nahiko orekatuta dagoela emakumeen eta gizonen kopurua; dena den, emakumeen kopurua pixka bat altuagoa da Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualdeetan.

3. taula. EAEko biztanle atzeritarren bilakaera. 2004, 2009 eta 2015 (kopuru absolutuak eta % hazkunde)

| | 2004 | 2009 | 2015 | Hazk. % 2004-2009 | Hazk. % 2009-2015 |
|--------------------|--------|---------|---------|----------------------|----------------------|
| | K | K | K | | |
| Arabako Ibarrek | 147 | 376 | 473 | 155,8 | 25,8 |
| Arabako Lautada | 13.079 | 26.029 | 29.643 | 99,0 | 13,9 |
| Arabako Mendialdea | 140 | 207 | 158 | 47,9 | -23,7 |
| Errioxa Arabarra | 398 | 1.009 | 1.194 | 153,5 | 18,3 |
| Gorbeia Inguruak | 266 | 582 | 577 | 118,8 | -0,9 |
| Kantauri Arabarra | 592 | 1.623 | 1.992 | 174,2 | 22,7 |
| Araba, guztira | 14.622 | 29.826 | 34.037 | 104,0 | 14,1 |
| Arratia Nerbioi | 615 | 1.348 | 1.463 | 119,2 | 8,5 |
| Bilbo Handia | 31.422 | 61.743 | 68.098 | 96,5 | 10,3 |
| Durangaldea | 2.575 | 6.318 | 7.416 | 145,4 | 17,4 |
| Enkarterri | 821 | 1.825 | 2.208 | 122,3 | 21,0 |
| Gernika-Bermeo | 1.496 | 3.370 | 3.862 | 125,3 | 14,6 |
| Markina-Ondarroa | 1.176 | 2.174 | 2.198 | 84,9 | 1,1 |
| Plentzia-Mungia | 2.029 | 3.617 | 4.008 | 78,3 | 10,8 |
| Bizkaia, guztira | 40.134 | 80.395 | 89.253 | 100,3 | 11,0 |
| Bidasoa Behera | 3.874 | 7.123 | 8.526 | 83,9 | 19,7 |
| Debabarrena | 1.477 | 3.406 | 4.844 | 130,6 | 42,2 |
| Debagoiena | 1.205 | 3.211 | 4.419 | 166,5 | 37,6 |
| Donostialdea | 12.273 | 23.151 | 27.898 | 88,6 | 20,5 |
| Goierri | 1.610 | 5.174 | 5.866 | 221,4 | 13,4 |
| Tolosaldea | 1.033 | 2.512 | 3.631 | 143,2 | 44,5 |
| Urola Kosta | 1.978 | 4.839 | 5.723 | 144,6 | 18,3 |
| Gipuzkoa, guztira | 23.450 | 49.416 | 60.907 | 110,7 | 23,3 |
| EAE, guztira | 78.206 | 160.790 | 184.197 | 105,6 | 14,6 |

Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egin da.

Hala gertatzen da, batez ere, Bilbo Handia (% 53,9) eta Plentzia-Mungia (% 54,6) eskualdeetan, baita Donostialdea (% 54,2) eta Arabako Mendialdea (% 54,2) eskualdeetan ere. Markina-Ondarroa eskualdean, aldiz, gizonen kopurua diraguzi atzeritarren artean (% 58,4).

Baliteke eskualde batzuetako lan-egituraren ezaugarriak izatea, hein handi batean, alde horiek egoteko arrazoia. Hain zuzen ere, feminizazio-tasa handiena duten eskualdeetan etxeko lanekin eta pertsonen zainketekin loturiko lan-


eskaintza gehiago dago; gizonezko gehiago dituzten eskualdeetan, berriz, nekazaritzarekin edo arrantzarekin lotura duten lan-eskaintzak ugariagoak dira (esaterako, Arabako Errioxan eta Markina-Ondarroan, hurrenez hurren).

Jatorri-eremu nagusiak

Jatorri-eremu nagusiei behatzen badiegu, Latinoamerika da nagusi eskualde guztietan, Arabako Errioxan izan ezik. Eskualde horretako atzerritar gehienak magrebtarrak dira. Ildo horretan, Latinoamerikatik etorritako biztanleen ehune-

korik handiena dute Plentzia-Mungia, Bilbo Handia eta Donostialdea eskualdeek; hain zuzen ere, eskualde horietan bizi diren atzerritarren erdia baino gehiago latinoamerikarrak dira.

3. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanlerien banaketa EAEko eskualdeetan, eremu geografikoen arabera (%). 2015



Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

¹2015. Biztanle latinoamerikarren eta magrebtarren datuak gutxi gorabeherakoak dira. Horiek kalkulatzeko, udalerri bakoitzeko biztanle amerikarren eta afrikarren datuak eta lurralde historiko bakoitzeko biztanle latinoamerikarren eta magrebtarren datuak erabili ditugu.

Jatorri-herrialde nagusiak, eskualdeen arabera

Salbuespenak salbuespen, EAEn dauden atzeritarren jatorri-herrialde nagusiak berdinak dira eskualde guztietan. Zehazki, Maroko eta Errumania dira jatorri-herrialde nagusiak eskualde gehienetan. Horrez gain, badago nabarmen-tzeko kontu bat: aspalditik hemen ditugun atzeritarren jatorri-herrialdeez gain (Maroko, Errumania edo Kolonbia, besteak beste), berriki beste batzuk ere agertu dira, esaterako, Pakistan.

Jatorri-herrialdeen mapa aldatuz joan da 2009tik 2015era. Ikus daiteke urte horietan aldaketa nabarmena egon dela eskualde bakoitzean nagusi diren jatorri-herrialdeetan (3. mapa): 2009an, EAEko eskualde gehienetan (hamahiru), Europako herrialdeetako atzeritarrak ziren nagusi, eta gainerakoak latinoamerikarrak (lau eskualde) edo afrikarrak (hiru eskualde) ziren; 2015ean, aldiz, Maroko da jatorri-herrialde nagusia, eta Errumania dauka atzetik. Dena den, zenbait kontu zehaztu behar dira joera orokor horren inguruan:

- Batetik, hiriburuetako eskualdeetan, kolonbiarrak (Bilbo Handia) eta marokoarrak (Arabako Lautada eta Donostialdea) dira nagusi. Jatorri atzeritarreko biztanle gehienak probintzietako hiriburuetan daude, eta horrek,

hein handi batean, baldintzatu egiten du EAEko jatorri nagusien *rankinga*.

- Esan bezala, Maroko eta Errumania dira jatorri-herrialde nagusiak eskualde gehienetan, eta horien atzetik daude Kolonbia (Bilbo Handian eta Plentzia-Mungian) eta Portugal (Arabako Ibarrek eta Gorbeialdea).
- Alabaina, badaude joera orokor horretatik kanpo geratzen diren hiru eskualde; izan ere, horietan bizi diren atzeritar gehienak jatorri-herrialdeak ez datoz bat EAEn nagusi diren herrialdeekin. Hala gertatzen da, esaterako, Bidasoa Beherea, Markina-Ondarroa eta Debabarrena eskualdeetan; horietan, atzeritar gehienak frantsesak, senegaldarrak eta pakistandarrak dira, hurrenez hurren.

Azken urteotako bilakaerari dagokionez, 2009. eta 2015. urteen artean finkatu diren zenbait joera aipa ditzakegu:

- Gora egin dute biztanle atzeritarren gehiengoaren jatorria **Maroko** duten eskualdeek; hala, jatorri-herrialde nagusi bilakatu da EAEko zortzi eskualdetan. Hain zuzen ere, 2009an Gipuzkoako bi eskualdetan zen nagusi Maroko (Debabarrena eta Urola Kosta), eta 2015ean beste seitan ere bai. Sei horietatik bi Gipuzkoakoak dira (Donostialdea eta


4. taula. EAEko eskualdeen osaera, jatorri-herrialde nagusien arabera

| | Maroko [19.260] | Kolonbia [17.191] | Errumania [15.230] | Bolivia [10.973] | Ekuador [8.514] | Portugal [7.481] | Frantzia [6.050] | Brasil [5.778] | Argentina [5.396] | Paragui [5.310] | Txina [5.283] | Aljeria [5.269] | Pakistan [4.793] | Peru [4.726] | Gainerakoak [62.943] |
|------------------------|--------------------|----------------------|-----------------------|---------------------|--------------------|---------------------|---------------------|-------------------|----------------------|--------------------|------------------|--------------------|---------------------|-----------------|-------------------------|
| EAE, guztira [184.197] | 10,5 | 9,3 | 8,3 | 6,0 | 4,6 | 4,1 | 3,3 | 3,1 | 2,9 | 2,9 | 2,9 | 2,9 | 2,6 | 2,6 | 34,2 |
| Arabako Ibarrek | 18,0 | 11,4 | 3,6 | 1,1 | 1,5 | 20,9 | 3,6 | 3,8 | 1,1 | 0,6 | 0,4 | 3,6 | 0,2 | 1,1 | 29,2 |
| Arabako Lautada | 13,7 | 13,0 | 4,0 | 2,1 | 4,5 | 3,3 | 2,0 | 3,6 | 2,1 | 3,2 | 2,7 | 6,5 | 5,1 | 2,5 | 31,7 |
| Arabako Mendialdea | 18,4 | 5,1 | 11,4 | 0,0 | 13,3 | 7,6 | 1,9 | 1,3 | 9,5 | 0,6 | 0,0 | 3,2 | 0,6 | 1,9 | 25,3 |
| Errioxa Arabarra | 35,0 | 4,1 | 9,0 | 1,8 | 0,8 | 20,6 | 1,1 | 1,8 | 1,7 | 0,4 | 0,3 | 1,8 | 6,6 | 1,0 | 14,0 |
| Gorbeia Inguruak | 12,5 | 3,8 | 11,3 | 1,4 | 5,7 | 12,5 | 3,3 | 1,7 | 5,7 | 1,4 | 2,6 | 2,6 | 2,9 | 2,4 | 30,2 |
| Kantauri Arabarra | 17,4 | 4,5 | 9,0 | 2,0 | 4,6 | 5,4 | 2,2 | 3,0 | 1,9 | 3,0 | 1,9 | 10,8 | 1,5 | 12,2 | 20,5 |
| Araba, guztira | 14,7 | 12,0 | 4,6 | 2,1 | 4,4 | 4,4 | 2,0 | 3,4 | 2,2 | 3,0 | 2,5 | 6,5 | 4,8 | 3,0 | 30,4 |
| Arratia Nerbioi | 11,1 | 6,7 | 20,1 | 9,0 | 7,8 | 3,3 | 1,8 | 2,4 | 2,1 | 1,9 | 1,4 | 6,3 | 0,8 | 2,3 | 23,0 |
| Bilbo Handia | 8,3 | 11,8 | 7,6 | 11,2 | 4,4 | 2,0 | 2,9 | 3,3 | 2,5 | 5,3 | 4,0 | 1,7 | 0,9 | 2,8 | 31,5 |
| Durandaldea | 13,5 | 4,8 | 19,1 | 6,5 | 2,7 | 4,9 | 1,9 | 3,6 | 2,0 | 0,9 | 1,5 | 1,6 | 1,2 | 1,1 | 34,7 |
| Enkarterri | 11,8 | 7,0 | 23,2 | 2,0 | 2,6 | 8,1 | 1,6 | 4,6 | 2,0 | 1,1 | 1,2 | 4,6 | 1,6 | 1,1 | 27,5 |
| Gernika-Bermeo | 4,6 | 3,6 | 34,9 | 5,7 | 2,4 | 2,1 | 1,9 | 2,5 | 4,0 | 1,7 | 2,0 | 2,2 | 1,5 | 1,7 | 29,2 |
| Markina-Ondarroa | 9,8 | 3,2 | 8,6 | 1,6 | 4,3 | 4,6 | 2,0 | 1,2 | 1,3 | 3,9 | 1,6 | 0,7 | 1,2 | 4,0 | 51,9 |
| Plentzia-Mungia | 6,4 | 14,0 | 4,7 | 7,5 | 3,3 | 3,1 | 4,3 | 6,3 | 4,3 | 2,4 | 2,5 | 0,7 | 0,5 | 1,6 | 38,3 |
| Bizkaia, guztira | 8,6 | 10,5 | 10,2 | 9,9 | 4,1 | 2,5 | 2,8 | 3,4 | 2,6 | 4,4 | 3,5 | 1,8 | 1,0 | 2,5 | 32,2 |
| Bidasoa Beherea | 8,4 | 8,6 | 7,3 | 0,9 | 4,6 | 5,9 | 10,5 | 4,6 | 3,1 | 0,2 | 2,4 | 2,3 | 1,1 | 4,7 | 35,3 |
| Debabarrena | 24,5 | 4,5 | 3,7 | 6,6 | 4,7 | 4,1 | 2,1 | 3,0 | 2,2 | 0,2 | 1,4 | 2,5 | 5,8 | 1,5 | 33,1 |
| Debagoiena | 10,9 | 8,0 | 2,2 | 6,5 | 3,9 | 9,1 | 2,4 | 1,7 | 2,3 | 0,3 | 2,5 | 4,3 | 12,6 | 1,4 | 32,0 |
| Donostialdea | 7,1 | 7,0 | 4,6 | 2,1 | 6,9 | 6,0 | 5,0 | 2,4 | 4,5 | 0,9 | 2,5 | 1,8 | 1,1 | 2,7 | 45,4 |
| Goierri | 13,4 | 2,9 | 28,8 | 1,0 | 4,7 | 7,2 | 1,5 | 1,1 | 3,3 | 0,1 | 1,6 | 1,6 | 7,3 | 0,8 | 24,6 |
| Tolosaldea | 16,2 | 3,4 | 8,4 | 0,6 | 4,4 | 9,4 | 2,4 | 2,2 | 3,3 | 0,0 | 1,4 | 4,7 | 2,3 | 1,5 | 39,6 |
| Urola Kosta | 14,4 | 3,7 | 6,0 | 1,7 | 3,1 | 3,6 | 3,3 | 3,0 | 5,7 | 0,6 | 1,5 | 3,5 | 9,5 | 0,9 | 39,6 |
| Gipuzkoa, guztira | 10,8 | 6,2 | 7,4 | 2,4 | 5,5 | 6,1 | 4,7 | 2,6 | 3,9 | 0,5 | 2,1 | 2,4 | 3,8 | 2,4 | 39,2 |


Iturria: ElNek argitaratutako jatorri-herrialdeei buruzko EAEko udalerrien arabeko datuak oinarri hartuta egin da.

2. mapa. EAEko eskualdeak jatorri-herrialde nagusien arabera. 2009 eta 2015

2015



2009



Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

Tolosaldeak, eta lau Arabakoak (Kantauri Arabarra, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa). Eskualde horien artean, lehen Errumania zen jatorri-herrialde nagusia Gipuzkoan, eta beste zenbait herrialde Arabako eskualdeetan. Esaterako, Perun jaiotakoak ziren Kantauri Arabarreko biztanle atzeritar gehienak, Kolonbiakoak Arabako Lautadakoak, Errumaniakoak Arabako Mendialdekoak eta Portugalekoak Arabako Errioxakoak.

- Behera egin du jatorri-herrialde nagusi gisa **Portugal** duten eskualdeen kopuruak. Hala, 2009an sei eskualde-tako jatorri nagusia zen Portugal, baina 2015ean bitakoa bakarrik (Gorbeialdea eta Arabako Ibarrek).
- Azken urteotan egonkorren mantendu den jatorri-herrialdea **Errumania** izan da. Nagusi izaten jarraitzen du, 2009an bezala, eskualde gehienetan (Enkarterri,

Arratia-Nerbioi, Gernika-Bermeo, Durangaldea eta Goierri); ez, ordea, Arabako Mendialdean. Bertan biztanle marokoarrak dira nagusi gaur egun.

- Bi dira oraindik ere biztanle atzeritar gehienak **kolonbiarrak** dituzten eskualdeak, baina zenbait aldaketa egon dira. Plentzia-Mungia eskualdeko egoera 2009koaren berdina da, baina Bilbo Handiko jatorri-herrialde nagusia Kolonbia da orain, eta ez Bolivia, 2009an zen moduan.
- Egonkor jarraitzen dute, halaber, Bidasoa Beherea, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia eskualdeek, honako jatorri-herrialde hauekin: Frantzia, Senegal eta Kolonbia, hurrenez hurren, 2009an bezalaxe. Aldi berean, jatorri-herrialde berriek ere hartu dute nagusitasuna; hala gertatu da, esaterako, Debagoienan, orain pakistandarrak baitira bertako biztanle atzeritar gehienak.

Ondorioak

EAEEn bizi diren atzeritarrek hiriburuetako eskualdeak aukeratzen jarraitzen dute nagusiki, eta gainerako eskualdeetan eta landa-eremuetan sakanabatuago daude, bertan jaiotakoekin gertatzen den bezalaxe.

Gipuzkoan atzeritar biztanleak ez daude beste probintzietan bezain zentralizatuta. Ildo horretan, Donostialdean Gipuzkoako atzeritarren erdia baino gutxiago bizi da. Bizkaian, berriz, lau atzeritarretik hiru Bilbo Handian bizi dira, eta Araban hamarretik ia bederatzia Arabako Lautadan.

Atzeritarren ehuneko altuena duten EAEko eskualdeak dira Arabako Lautada, Arabako Errioxa eta Bidasoa Beherea; baxuena dutenak, berriz, Enkarterri, Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Kantauri Arabarra.

Latinoamerikar jatorria duen biztanleria da nagusi EAEko eskualde gehienetan, baina alde handiak daude eskualde bakoitzeko guztizkoan duten garrantzian. Esaterako, Plentzia-Mungia, Bilbo Handia edo Donostialdea eskualdeetan jatorri horretako biztanleen ehunekoa % 50 edo gehiagokoa da; beste batzuetan, aldiz, garrantzi txikiagoa dute, Goierri (% 27,5) edo Arabako Errioxan (% 17,1), kasurako. Azken eskualde horretan biztanle magrebtarrak dira nagusi; latinoamerikarrek ere gaintzen dituzte.

Bi etapa bereiz ditzakegu eskualdeek azken urteotan izan duten bilakaeran:

- Lehenengoa, oparoaldi ekonomikoko garaia lotua (2004-2009); aldi horretan biztanleria atzeritarren hazkunde handia eman zen, bai ehunekotan, bai kopuru absolutuetan ere. Gorakada hori nabarmena izan zen honako eskualdeetan: Bizkaian, Gernika-Bermeon, Markina-Ondarroan eta Durangaldean; Araban, Arabako Lautadan eta Arabako Errioxan; eta Gipuzkoan, Goierri, Urola Kostan eta Bidasoa Beherean.
- Bigarren etapa krisi ekonomikoaren garaia dagokiona da (2009tik 2015era); aldi horretan atzerriko biztanleek gora egiten jarraitu zuten eskualde gehienetan, baina aurreko etapan baino askoz ere motelago. Izan ere, beste eskualde batzuetan, ordea, biztanle atzeritarren kopuruak behera egin zuen: Gorbeialdean eta Arabako Mendialdean. Eskualde gehienetan, ordea, jatorri atzeritarreko biztanleriaren ehunekoa mantendu egiten da edo zertxobait egiten du gora. Gorakada txiki honen adibide dira Arabako Errioxa, Arabako Ibarak, Gernika-Bermeo, Debabarrena, Debagoiena, Bidasoa Beherea eta Tolosaldea. Bigarren etapa horretan latinoamerikarrek nagusi izaten jarraitu zuten, baina beste jatorri-eremu batzuek ere indarra hartu zuten zenbait eskualdetan. Horren adibide dira Debagoieneko marokoarrak eta pakistandarrak. Beraz, jatorriak dibertsifikatuago daude bigarren etapan.

asteroko berri-sorta

newsletter semanal

ikusberri

Immigrazioa hedabideetan
La inmigración en los medios

Harpidetu!

¡Suscríbete!

Immigrazioa, errefuxiatuak, aniztasuna, etab. interesatzen zaizkizu?

Honi buruzko berri garrantzitsuenak biltzen dituen astekaria prestatzen dugu Ikuspegin.

Ostiralero gure berri-sorta jasoko duzu zure emailen zuzen-zuzenean. Harpidetu zaitez!

Berriak egunero kontsultatzeko:
ikusberri.ikuspegi.eus